



Ilan a eta gizartearazea



Emakumezkoen eta Gizonetako
Berdintasunerako I. Plana 2010-2013



Bergarako
Udala

egungo egoera

Pertsonen zaintza-lanak:

Hein handi batean, familiaren gain geratzen dira eta, batez ere, familiako emakumearen gain. Emakunderen 2008ko datuen arabera, emakumezkoak dira zaintza-lanen eta etxeko lanen % 75 egiten dutenak. Bergara mailan, ez dago honen inguruko daturik. Ez dakigu zenbat etxeko-andre edo gizon dauden, ezta bakoitzak lan hauek egiten zenbat denbora ematen duen ere.

Hala ere, emakumezko eta gizonezkoen artean desoreka handia ikusten da denboraren erabilerari dagokionez. Emakumezkoek denbora gehiago ematen dute, bataz beste, etxeko eta zaintza-lanetan. Desoreka hau nabarmen handitzen da ume txikiak edo dependentzia egoeran dauden adineko pertsonak dauden familiatan. Emakumezko askoren kasuan, denbora librea desagertu egiten da eta norberagandik espero den guztia betetzeko zaitasunak dituzte askok.

Lana eta langabezia:

Emakumezkoen langabezia gizonezkoena baino altuagoa izan da 2008 arte. 10 langabetutik 6 emakumezkoak ziren 2008an. 2009an datuak irauli egin dira, ordea; ez emakumezkoen langabezia gutxitu delako, hazi egin baita, gizonezkoen langabezia bikoiztu egin delako baizik. Zaintza-lanen eta etxeko lanen ardura emakumezkoen ardura izateak zaildu egiten die emakumezkoei lan-merkatuan sartzea eta zailagoa egiten zaie enplegua eta familiako lanak uztartu ahal izatea.

Prekarizatuen dauden lan-sektoreetan, bestalde, gehiengoa dira emakumezkoak, garbitzaile- edo zaintza-lanetan, kasu. Era berean, emakumezkoak nagusi diren sektoreek errekonozimendu sozial eskasagoa izan ohi dute (erizaintza, adinekoen zaintza, haurren heziketa, etxeen garbiketa eta mantentua, ostalaritza eta dendak, etab.).

Bazterkeria:


Bazterketa-egoerak bizi dituzten emakumezkoak eta gizonezkoak ez dira berdin ikusten ezta berdin baloratzen ere. Alkoholikoen kasuan, adibidez, gizonezkoak herrian integratuago eta onartuagoa egon ohi da. Horri gehitu behar zaio norbere burua ez duela berdin ikusten gizonezko alkoholikoak edo emakumezko alkoholikoak.

Emakumezkoen aurkako indarkeria:

Emakumezkoen aurkako indarkeria-salaketei dagokienez, salaketa-kopurua goraka doa urtez urte. Zehazki, 2007tik 2009ra bikoiztu egin dira salaketa kasuak (8tik 16ra).



Salaketaren bat dagoenean, Udaleko Gizarte Zerbitzuek berehalako erantzuna emateko prozedura jartzen dute martxan.



gure asmoa

- Enplegua eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko, beharrezko zerbitzuak bultzatuko dira.
- Bergarako enpresetan bateragarritasuna bultzatzeko zer egiten den aztertu eta hobetzeko neurriak proposatuko dira.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen erantzunkidetasunaren inguruko sentsibilizazio-kanpainak egingo dira, bereziki gizonezkoei zuzenduta, etxeko lanak eta zaintza-lanak denon kontua direla nabarmenduz.
- Diskriminazio- edo bazterketa-arriskuan dauden emakumezkoen egoerak eta premiak aztertuko dira, eta hauentzat laguntza-taldeak antolatuko dira.
- Lan-merkatura bideratutako pres-takuntza-ekintzak iragartzerakoan, emakumezkoen presentzia sustatzeko sentsibilizazio-lana egingo da.
- Etxeko lanekin eta familiako zaintza-lanekin lotutako lanpostuetan kontratuak egitea bultzatuko da.
- Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko protokoloa egokitutu, hobetu eta martxan jarriko da.
- Emakumezkoen aurkako indarkeria prebenitzeko estrategiak garatuko dira, bereziki gizonezkoei zuzendutakoak.



emakumeen aurkako indarkeria



Bergarako Gizarte Zerbitzuek era askotako laguntza ematen dute, besteak beste:

**Behar duenari laguntza eman eta egoera baloratu
Osasun-zerbitzura lagundi,
lesioak dauden kasuetan.
Poliziaren laguntza
eskatu, bere
segurtasuna arriskuan
badago.**

**Bere eskubideen berri
eman eta bere
beharrei erantzuteko
eskura dituen
baliabideen inguruan
informatu
Sistemak berak
dituen baliabide
sozialak lortzeko
Kudeaketa bideratu:
laguntza psikologikoa,
aholkularitza juridikoa,
harrera-ostatuak, diru-
laguntzak**

**Aholkuak eman eta beste
zerbitzu espezializatuetara
bideratu:**

**Biktimen Arreta Zerbitzua, laguntza
Juridikoa emateko Zerbitzua eta emakume-
elkarreka.**

**Babes-etxera sartzeko tramiteak bideratu,
beharrezkoa den kasuetan.**

Prozesu guztian zehar kasuaren jarraipena egin

Informazioa: 943 779 125

violencia contra las mujeres



Apoyo ofrecido desde los Servicios Sociales

Atención a la víctima y valoración de cada caso.

Evacuación médica en caso de lesiones.

Solicitar la presencia policial necesaria para proteger su vida.

Darle la información de sus derechos legales y ofrecerle todos los recursos que están en nuestra mano.

Dirigir la gestión de nuestros servicios sociales:

ayuda psicológica, asesoramiento jurídico, centros de acogida, ayudas económicas

Asesoramiento y otros servicios especializados:


Servicio de Atención a las Víctimas, Servicio de Asistencia Jurídica y Asociaciones de mujeres.

Gestión de alojamiento de emergencia, en caso necesario.

Seguimiento especial durante todo el proceso.

Información: 943 779 125





nuestros propósitos

- Promover los servicios necesarios para poder compaginar la vida personal, familiar y laboral.
- Analizar la situación de la conciliación en las empresas de Bergara y proponer medidas de mejora.
- Promover campañas para favorecer la corresponsabilidad entre hombres y mujeres en el reparto del trabajo doméstico y del cuidado a personas.
- Analizar las situaciones de las mujeres expuestas al riesgo de discriminación o marginación, y atención de sus necesidades.
- Realizar campañas de sensibilización

para favorecer una mayor y mejor presencia de la mujer en los cursos formativos encaminados a su inserción laboral.

- Promover la formalización del contrato de trabajos que tengan la consideración de tareas domésticas o cuidado de personas.
- Elaboración de un Protocolo local de actuación en la atención a mujeres víctimas de maltrato.
- Desarrollar estrategias para detectar, prevenir y afrontar situaciones de violencia de género.



situación actual

Cuidado de personas:

Tradicionalmente las tareas del cuidado de las personas en situación de dependencia quedan a cargo del ámbito familiar, y con una dedicación casi exclusiva por parte de las mujeres. Según el último estudio de Emakunde (2008), las mujeres representan el 75% de esa población activa. En este sentido, carecemos de datos a nivel de Bergara. Desconocemos cuál es el número real de amas y amos de casa, y el tiempo que dedican en cada caso a esa tarea.

Con todo, el tiempo que le dedica una mujer es mayor que el que le dedica un hombre. Esa diferencia se ve acentuada en los ámbitos familiares en los que hay niños más pequeños o personas mayores dependientes. El tiempo de ocio ha desaparecido de la vida de muchas mujeres, y son muchas las que no pueden dar el rendimiento que pueden dar potencialmente.

Trabajo y desempleo:

En Bergara, hasta el 2008 el número de mujeres en situación de desempleo ha sido más alto que el de hombres. En concreto, en 2008, 6 de cada 10 personas desempleadas eran mujeres. Sin embargo, en 2009, se rompe esa tendencia: el paro aumenta de forma considerable tanto entre las mujeres como entre los hombres, pero el número de hombres desempleados se duplica y supera el nivel de las mujeres.

La presencia de las mujeres en el sector laboral más precario es mayoritaria (tareas de limpieza o cuidado de personas). Por otro lado, el reconocimiento social y laboral de la mujer en los sectores en los que su presencia es predominante (enfermería, geriatría, guardería, limpieza de casas, hostelería y comercio, etc.) suele ser en general muy inferior.

Al estar las tareas del hogar y de cuidado de personas habitualmente en manos de las mujeres, se agrava y dificulta su inserción laboral, siendo casi imposible compaginar los dos roles de ama de casa y de empleada.

Marginación:

La aceptación social de una situación de marginación de la mujer, respecto al hombre, sigue siendo muy distinta. Así por ejemplo, en el caso de las personas alcohólicas, el hombre vive de un modo mucho más integrado y aceptado en el ambiente social. Además de que la consideración que de sí misma hace la mujer alcohólica es muy diferente a la que hace el hombre alcohólico.

Violencia de género:

Desde Servicios Sociales del Ayuntamiento se sigue un procedimiento de Respuesta Inmediata ante cualquier denuncia de malos tratos, haciéndose un especial seguimiento en todo el proceso.

El número de denuncias por malos tratos aumenta cada año. De 2007 a 2009 se ha duplicado el número de denuncias (de 8 a 16).



trabajo e integración social

**I. Plan para la Igualdad de
Mujeres y Hombres 2010-2013**



Bergarako
Udala